




**IKASBIDE
KULTUR
ELKARTEAN**
Isabel II, Hirib. 15 behea
Tel. - Fax 943 457 107
20011 DONOSTIA
www.ikasbide-kultur-elkartea.eus

Euskal literatura goza!



KOLOSALA IZANGO DA

Joseba Sarrionandia (Txalaparta, 2003)

Gerra Kalaportura iritsi da. Eta bertako umeen bizitzarekin nahastuko da gerra. Guda umetu egingo da talka horretan; ume kontua, ia jolasa bihurtu. Aldiz, umeak gogortu, sentimenduz ahaztu eta bizilarriz arituko dira.

Gerran umeek ez dute ez aldeko, ez areriorik topatuko. Ez da aldarrikapenik izango. Ez da logikarik egongo. Ez da gorrotorik egongo. Baina umeek ez diote haurtzaroari uko egingo, eta bizitzaz gozatzen saiatuko dira tokatu zaien garai berezi horretan.

Pasadizoak bata bestearen atzetik igaroko dira umeen begirada jolastariaren aurrean, eta herioa eta drama gaztetxoaren ikuspegiaren bahetik pasatzean gertakari bitxien mailara iritsiko dira soilik.

Protagonistaren ikuspuntutik jarraituko dugu narrazioa, berez pasadizo labor eta intentsoen ilara; oso era klasikoan kontatuta nahi bada; baina sotiltasun eta apaltasunez emanda: gorrotorik gabe, hizkuntza bizi, xamurtasun apartaz.

Oso urruti dago faxismoaren aurkako liburua izatetik, edota aldarrikapen abertzale izatetik. Liburu bakezalea da. Hain da bakezale, non gerraren erdian ere gerrarik ez dagoela ematen du; gehienez gizakien onberatasuna gudaren labirintoan iparra galduta.

**Azaroaren 5ean
19:00etatik-20:00etara**

**IKASBIDE KULTUR
ELKARTEAN**

Edu Zabalak zuzendua



Joseba Sarrionandia

